

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak bere hobekuntza ekonomikoa sendotu du, azken urtean % 1,8ko hazkundera izanik

Eskualdeko BPGD % 0,5 hazi da 2014ko hirugarren hiruhilekoan

Jueves, 30 de octubre de 2014

Nafarroako ekonomia % 0,5 hazi da azken hiruhilekoan, hau da, % 1,8ko hazkunde erreala izan du 2013ko aldi berarekin alderatuz; hala, eskualdeko ekonomiaren hobekuntza sendotu da, eta azken 5 hiruhilekotan jarraian zeroren gainetiko balioak batu dira.


Hiruhileko kontabilitateko aurrerapenean jasotako [datu horiek](#)

gaur goizen aurkeztu ditu lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak. Hark adierazi du jokabide hori Espainia guztiak izandakoaren antzekoa dela, azken hiruhilekoan % 0,5eko hazkundera izan duena, baina ez du Nafarroaren urte arteko datua berdintzen, eta % 1,6an geratu da.

Goicoechea lehendakariordearen aburuz, BPGd-ean izandako hobekuntza hori kanpoko sektoreak elikatu du hein handi batean, Nafarroarako modu oso onean eboluzionatzen ari baita, sektore hori Espainiako ekonomian ahitu samarra agertzen den ingurune batean ere. Lan-merkatua ere pixkanaka hobetzen ari dela aipatu du eta goranzko joerari eusten bazaio, jarduera ekonomikoa suspertzen lagun dezake familiak gastu gehiago eginez.

Lourdes Goicoecheak esan du, gainera, azken hiruhileko hazkundeak Foru Komunitatea 2007. urtearen amaieran zegoen ekoizpen-mailan jartzen duela, krisi ekonomikoa hasi zen unean. Une hartatik aurrerako datuek, gainera, erakusten dute Espainiako ekonomiak Nafarroak baino 5,9 puntu gehiago galdu dituela krisia hasi zenetik.

Etorkizun hurbilari dagokionez, adierazi du nazioartean gertatzen denaren baitan izango dela; nazioartean, susperraldia apur bat geratu egin dela ikusi da azken asteotan; nolahi ere, Nafarroako ekonomiaren bilakaera egindako aurreikuspenekin bat dator eta haren urteko hazkundera % 1,5ean jartzen du 2014aren amaieran.



Nafarroako BPGd-aren bilakaera.